

2010-03-03 - 20.saioa (89)  
BIXI-BIXI irratsaioa

**12:15.- Aurkezpena.**

Gaur idazle eguna dugu, BIXIBIXI badarik ere, hasieratik baten hitzak ekarri nahiko nituzke gogora, tartean beste idazle batekin mintzatzeko aukera izango dugu eta bukaeran historia astinduz, Segurako idazleak aipagi izango ditugu.

Bernardo Atxagaren hitz batzuekin hasiko dugu gaurko saioa:

*Hizkuntza bat ikasten denean, nahiz eta erraztasun osoa ez izan hitz egiteko, zerbait eraikitzen ari da nor beraren barruan...*

Joxemari Velez de Mendizabalek egindako elkarrizketatik hartu ditugu euskonews orrialdetik.

**Galdera berria:**

Iparra hegoa datorrela eta, iparraldera joko dugu hilabete honetan behin baino gehiagotan."Nesken eguna" asteko zein egunari esaten diote eta non?

**12: 18: Eguneko gaia**

Karmele Jaio

**12: 40 Lehenbizi euskaraz eta ahal bada txukun.**

Beasaingo Euskaltegia 943 028100

**12:44.-.Jalgi hadi plazara**

**12:50- Erlea**

*EZTIA - artikulo honi eta bide batez bere baitan duen bideo ederrari ere bai.*

***Binomio ahaltua***

By Iñigo Fernández Ostolaza

<http://www.gaur8.info/blogosfera/klik/76932>

Euskara "produktua" saltzeko, euskara bera baino gehiago, euskarazko une, gune eta produktu erakargarriak dira sortu eta saldu behar ditugunak.

Komunikazioaren eta marketinaren ikuspegitik, beti izan eta [esan](#) dut argi hori:

. Euskararen inguruko mezuak (eta zer esanik ez logotipoak) baino gehiago, euskarazko mezu eta batez ere produktuak behar ditugu, euskarazko **produktu erakargarriak.**

. Ezer gutxirako balio du euskara frexkoa dela, modernoa dela, gozagarria dela behin eta berriz errepikatzeak, gero errealitatean promesa horri eutsiko dioten produktuak ez badauzkagu.

. Produktuak gozatu egiten ditugu, eta demostratiboak dira beraz, euskararekin benetan gozatu dezakegula erakusten digutelako.

. Euskarazko produktu arrakastatsuak sortzeaz gainera, gurean gaur gozagarri direnak **behar bezala komunikatu** eta saltzen ere saiatu behar genuke, eta sarritan ez euskaldun publikoari begira soilik gainera.

Horregatik, opari eder gisa jaso dut gaur [hau](#):

Eszenaratze ikusgarria, emozioak, estetika...

Euskara gozagarri, euskaraz ez dakitenak inbidiaz uzteko moduan, erdaldunekiko zubigintza lana egiten... Euskara hutsezko produktu oso on bat, bertsoarritza, goi mailako kultur-manifestazio bat, maila bereko ikusentzunezko batek zabaldua.

Euskara sustatzeko egin diren publizitate-kanpaina gehien-gehienak baino eraginkorragoa seguru. Merezi du oihartzun zabala izan dezan.

Halako **binomio gehiago behar ditugu** nire ustez: produktu oso onak, eta haiek saltzeko komunikazio pieza eta ekintza erakargarri eta eraginkorrak.

*Ea ba gai garen! Aholkuagatik eztiz sarituko dugu Iñigo Fernandez.*

**12:53- Hitza - Goierritarra**  
Iñaki Gurrutxaga 647 319 749

**12:58.- Herrietakoak**  
Aitor SEGURAKO EBPN

## ORDIZIA

**Idiazabalgo Gazta Museora eta gaztandegira bisita.**

Eguna	2010-03-10, asteazkena
Ordua	Hasiera: 14:45 (museoan bertan) / Amaiera: 16:45
Izen ematea	Martxoaren 8rako, Ordiziako Udaleko Euskara Zerbitzuan (943805622) edota Ordiziako Goiztiri AEK-n (943889174)
Ordaindu beharrekoa	Doan
Oharrak	<ol style="list-style-type: none"><li>1) Idiazabalera nor bere autoan joango da.</li><li>2) ahal bada, izena emandakoekin taldeak osatuko dira elkarrekin bertaratzeko.</li><li>3) Gaztaren Museoa ikusiko da lehenengo; ondoren gazta dastaketa izango da, eta amaitzeko gaztandegia erakutsiko digute bertako gidariek.</li></ol>

**Ostalaritza, euskaraz ez dakiten ostalaritzako langileentzako ikastaroa** euskaraz ez dakiten Ostalaritza ikastaroa antolatu du Ordiziako Udalak. Zerbitzua euskaraz bideratu ahal izateko bitartekoak eskaini nahi

dizkie herriko tabernei eta jatetxeei. Ikastaroan, besteak beste, honakoak ikasiko dituzte ikasleek: edariak eta pintxoak euskaraz zerbitzatzeko, bezeroak kontua eskatzen duenean ulertzen eta kobrantza egiten, mahaiaren erreserba egiten, eguneko menua eskaini eta eskaera ulertzen, eta abar.

• Informazioa eta lizenziak: Ordiziako Udaleko Euskara Zerbitzuan (Herritarren Arretarako Udal Bulegoan, Kale Nagusia 24; 943 80 56 22), martxoaren 31a baino lehen. Inguruetako herrietako bizilagunak ere onartuko dira ikastaroan, lekua dagoen neurrian.

## **AISIALDIAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO PROGRAMAK HARTZAILEAK**

**Udaleku irekietan aritu nahi duten begiraleak eta hezitzaileak  
Dinamizatzaile soziokulturalak  
Erakundeetako teknikariak**

**IRAUPENA** 9 ordu **DATAK** apirilak 6, 7 eta 8 **ORDUTEGIA** 10:00-13:00

**LEKUA** Barrena Kultur Etxea **MATRIKULA EPEA** Martxoak 30

**PREZIOA** 10€ ordiziarrentzat / 20€ Ordiziatik kanpoko ikasleentzat

Informazioa: Ordiziako Udaleko Euskara Zerbitzuan (Herritarren Arretarako Udal Bulegoan, Kale Nagusia 24; 943 80 56 22),

Ahokotasunari buruz **Ahoz aho II. jaialdia** Ordizian martxoaren 6tik 18ra.  
Ordiziako Udaleko Kultura sailak antolatua

Besteak beste:

-Martxoaren 11n: Ipuin kontaketa Urdaneta ikastetxean (10:00) eta Jakintza ikastolan (11:15). Ixabel Millet ariko da ipuinak kontatzen.

-Martxoaren 12an: Ipuin kontaketa Urdaneta ikastetxean (10:00) eta Jakintza ikastolan (11:15). Kandelen Argipean ariko da ipuinak kontatzen.

-Martxoaren 12an, Herri Antzokian, 22:15. Ahokotasunaren Jaialdi Handia. Parte hartuko dutenak: Antonio Gonzalez Beltran (Valentzia, Herrialde Katalanak); Mercedes Carrion (Peru), Jhon Ardilla (Colombia), Ana Torrellas (Venezuela), Ana Cristina Herreros (Madril), Jerman Argueta (Mexico), Ixabel Millet (Euskal Herria), Kandelen Argipean (Euskal Herria), Iñaki Carretero (Euskal Herria).

-Martxoaren 15etik 18ra, ipuin ikastaroa. "Zergatik, zer eta nola kontatu ipuinak haurrei". Beatriz Egizabala (Kontu-Kantoi)

## **LAZKAO**

**BERTSO-AFARIA** Xebastian Lizaso eta Amets Arzallus.  
(Lazkao Txiki hil zela 17 urte)

**NOIZ:** 2010eko martxoaren 26an, ostirala, gaueko 8:30ean.

Lazkaomendiko Lartxai Elkartearen.

**IZENA EMATEKO EPEA:** martxoaren 23 baino lehen.

Gerriko Liburudendan (943-88 65 00)  
Lazkaomendiko Lartxai Elkartean  
PREZIOA: 22,00 € . GOIERRIKO EUSKAL ESKOLA KULTUR ELKARTEA  
LAZKAO-TXIKI TALDEA

## **MARTXOAN BERTSOA**

Martxoan Bertsoa bertso txapelketa herrikoiak kanporaketa fasearen erdia gaintu du. Asteburuan bi saio izan dira, ostiral gauean Urretxuko Motx tabernan eta larunbat arratsaldean Ezkio-Itsasoko Igartubeiti museoan. Bietan ere ez zen girorik falta izan, eta bi kanporaketen faltan sailkapenak itxura giro bikaina.

### **Bi kanporaketa falta**

Bertso eskolako kideen esanetan, Gaztelekuko finalerako txartelak «inoiz baino garestiago» daude. Hiru kanporaketa jokatura, beste bi falta dira.

Datorren asteburuan izango dira bi saioak. Lehenbizi ostiralean Legazpiko Arrano tabernan, eta bigarrena larunbatean Urretxuko Aldiri tabernan. Finala hilaren 26an egingo dute gaztetxean. Hiru talde sartuko dira, puntuazioz.

Sailkapena

**Lehenengo.** 'Potato' (Asier Otamendi, Rikardo Gonzalez, Felipe Zelaieta). 188,5 puntu.

**Bigarren.** 'Oilarrak' (Itziar Etxezarreta, Asier Sasieta eta Gorka Azkarate). 181,5.

**Hirugarren.** 'Motxorro' (Jokin Murua, Oier Oiarbide eta Asier Iriondo). 181,05.

**Laugarren.** 'Non dago Eli?' (Antton Fernandez, Uxue Fernandez Asier Auzmendi). 178,85.

**Bosgarren.** 'Edurnezuri eta bi ipotxak' (Amaia Iturriotz, Edurne Plazaola, Maialen Akizu ). 177,5.

**Seigarren.** 'Potto eta bere koadrila' (Aratz Igartzabal, Endika Igartzabal eta Mikel Asurabarrena). 172,75.

**Zazpigarren.** 'Haundi-maundi jaleak' (Jorge Andueza, Ander Gabirondo eta Andoni Jaka). 167,6.

**Zortzigarren.** 'Beteranoak' (Juanjo Aranburu, Joseba Segurola eta Iker Otegi). 166,5.

**Bederatzigarren.** 'Gu ta gutarrak' (Gaizka Oiartzabal, Itziar Pildain, Aitor Otegi). 167,6.

**BEASAIN,** Usurbe antzokian - 2010-03-12, 22:30

Arrano Kultur Elkartek antolatutako VIII. Neguko Bertsopaper Lehiaketako sari banaketa ekitaldia egingo da martxoaren 12an Usurbe antzokian. Antolatzailea: Arrano Kultur Elkartea

LAZKAO, Areria kulturgunean - 2010-03-12, 17:30

Txalo taldeak, "Ali, haren amona eta alfonbra hegalaria" umeentzako antzezlan eskainiko du martxoaren 12an, Areria kulturgunean. Saioa, arratsaldeko 17:30ean izango da

## BESTERIK:

"Inposaketarik Ez! Euskal Herriak Bere Hezkuntza" goiburupean, mobilizaziora deitu du **martxoaren 13rako**, Bilbon, EHBE Euskal Herria Bere Eskola herri ekimenak.

Hiztegi Batuaz jardunaldia egingo du Euskaltzaindiak **martxoaren 23an**, akademiaren Bilboko egoitzan. Helburua [Hiztegi Batuko](#) erabakiak hartzeko, Euskaltzaindiak erabiltzen dituen irizpideak, laneko prozedurak eta tresnak erakustea da. Horrekin batera, egun horretan jendaurrean aurkeztuko dira aurrerantzean Euskaltzaindiaren webgunean kontsultagai egongo diren bi tresna lexikal berriak, hain zuzen ere, Hiztegi Batu Oinarriduna (HBO) eta Lexikoaren Behatokia. Izena emateko (doan) epea martxoaren 18a arte, [hemendik](#), ez bada lehenago betetzen, edukiera mugatua baita.

Igaro berri den asteburuan 2009ko **Beterriko Liburua** aukeratzeko lehenengo bozketa txanda itxi ondoren, gaur zenbatu ditugu jasotako proposamen guztiak, eta iaz bezala, aurten ere lehen txanda honek ez digu irabazlerik utzi. Irati Jimenezen *Nora ez dakizun hori* eleberria izan da aldeko boto gehien jaso duen obra, baina ez du lehenengo txandan saridun izendatzeko behar zuen botoen %30 lortu (jasotako 65 proposamenetatik 12 jaso ditu idazle bizkaitarraren lanak). Hori dela eta, 2009ko Beterriko Liburua Ohorezko Literatur Aipamena nori eman erabakitzeko bigarren bozketa txanda martxan jarri beharrean gara.

111 Akademiaren arautegiaren arabera, bigarren txanda honetan aurrekoan boto gehien jaso duten lehenengo bost obrak jarri beharko genituzke zure irizmenpean. Aurten ordea, bosgarren postua betetzeko Etxeberria anaien *Arrain abisalak* eta Fermin Etxegoien *Autokarabana* berdinduta ditugu launa botorekin. Berdinketa horren aurrean, egokiena bata zein bestea hurrengo txandara pasatzea dela uste dugu, eta beraz, aurten Beterriko Liburua aukeratzeko bozketa sistemaren bigarren txandan sei liburu jarriko ditugu zure irizmenpean:

- Martin eta Xabier Etxeberriaren **ARRAIN ABISALAK**.
- Uxue Alberdiren **AULKI-JOKOA**.
- Fermin Etxegoien **AUTOKARABANA**.
- Aingeru Epaltzaren **IZAN BAININTZEN NAFARROAKO ERREGÉ**.
- Karmele Jaioren **MUSIKA AIREAN**.
- Irati Jimenezen **NORA EZ DAKIZUN HORI**.

Gauzak horrela, bigarren txanda honetan sei obra horietatik gehien gustatu zaizunaren aldeko botoa bidaltzeko eskatuko dizugu. Bigarren boto hau bidaltzeko azken eguna **martxoaren 30a** izango da.

Bozketa sistema aurkezterakoan aipatu genizun bezala, bigarren txanda honetan jasotako botoen %40 gainditzen duen obra izango da 2009ko

Beterriko Liburu izendatuko dena. Boto kopuru hori lortzen duen lanik ez balego, hirugarren txanda batean aurreko txandako bi bozkatuenak zure irizmenpean jarriko genituzke.

Baina hori aurrerago izango da; oraingoz, hilabete osoa duzu aurretik irakurketari ekin eta zure botoa bidaltzeko.

## Haurrendako Antzerki Testuen XIX lehiaketa

© cc-by-sa Iñaki Azkona Huércanos | 2010-03-07 | 14:49 | [Antzerkia](#)

Iruñeko Udalak eta Nafarroako Antzerki Eskolak hemeratzigarrenez deitu dute Haurrendako Antzerki Testuen Lehiaketa. 2010eko maiatzaren 15.a da lanak aurkezteko muga epea.

Bestalde, heltzear den martxoaren 28an izanen da 2009ko edizioko lan saridunaren antzezpenaren estrainaldia. Segidan, hiru egunetan zehar, 1750 haurrendako eskola kanpaina burutuko da.

Izan ere, lehiaketa honek, 2.200 euroez gain, badu nekez ordain daitekeen beste sari bat: Nafarroako Antzerki Eskolak ekoiztu eta erakusgai jarriko du irabazlea suertatu den antzerki testua. Egileek nekez izaten duten zoria. Horrela gertatuko zaio martxoaren bukaera honetan Galder Perezi bere "Alex eta Arale"rekin.

Hona lehiaketaren zehaztasunak:

- 2.200 eurotako bi sari izanen dira: euskarazkoa eta gaztelaniazkoa.
- Lanak aurkezteko epea: maiatzaren 15.a
- Egileak 18 urtetik gorakoa behar du izan, eta lanak jatorrizkoak eta argitaragabeak, aretoetan emangabeak eta beste lehiaketetan saririk jaso ez duena.
- Nafarroako Antzerki Eskolan (San Agustin K. 5, 31001. Iruña)

Informazio gehiago:

[www.pamplona.net](http://www.pamplona.net)

[www.laescueladeteatro.com](http://www.laescueladeteatro.com)

948.420.960 eta 948.229.239

**13: 10-**

**“Segurarren historia” Bizitzak eta Aurpegiak** liburutik

Idazleak eta euskaltzaleak kapituloari erreferentzia egingo zaio. Segurako idazle baten izena hartu du Lazkaon antolatzen duten ikerlan bekak, oraintxe zabaldu berri da XV. Edizioko deialdia: Gerriko ikerlan bekaz ari gara. Bide batez oroitaraziko dugu nor zen Jose Inazio Gerriko,

[943-16 02 82](tel:943-16-02-82)

[943-88 79 71](tel:943-88-79-71)

[gee@euskalnet.net](mailto:gee@euskalnet.net)

[www.maizpide.com](http://www.maizpide.com)

[www.lazkao.net](http://www.lazkao.net)